



berria

Asteazkena
2007ko irailaren 19a

Nestor Basterretxea, bere bizitzari buruzko DVDa eta liburuxka eskuetan dituela. IMANOL OTECA / ARCAZKI PRESS

Alderdi ugariko artista

ESTITXU ZABALA
Donostia

Nestor Basterretxea artista bermeotarraren (Bizkaia) bizitza artistikoa eta bereziki pertsonala era arin eta erakargarri batean biltzen saiatu dira Jose Angel Irigarai eta Josu Zabala *Erroen modernitatea* lanean. Arteolak ekoiztutako DVDa eta liburuxka kaleratu berri ditu Pamiela argitaletxeak. «Basterretxearen omenezko ekarpen artistiko bat egin nahi izan dugu», dio Irigarai.

«Liburuxkan Basterretxearen biografia egin dut, baina, aldi berean, haren ibilbide artistiko guztien zantzuak biltzen saiatu naiz, eta, horretarako, haren obrari buruz beste adi-

Nestor Basterretxearen bizitza jasotzen duten DVDa eta liburuxka argitaratu ditu Pamiela argitaletxeak.

tuek esandakoak bildu ditut», esan du Irigarai. Bildutako aipua jatorrizko hizkuntzan mantendu ditu. Gehienak gazteleraz daude.

DVDan, berri, Basterretxeak arlo artistiko anitzekin izandako harremana azaldu nahi izan dute: zinema, plastika, arkitektura, diseinua, literatura eta musika. «Arlo artistiko guztietan zerbait izatea lortu du», esan du Irigarai.

Artistaren bizitzaren ibilaldia egin dute DVDan, eta, besteak beste, artista anitzen musika eta poemekin osatu dute. Artistaren lanen gainean hainbat lagunek esandakoak bildu dituzte; esaterako, Juan Astigarribiaren omenez egindako eskulturaren inaugurazioan Andoni Egañak botatako bertsoetako bat. Hala ere, badira lan honetarako bereziki egindako ekarpenak. Kirmen Uribe poetak eta Mikel Urdangarín abeslariak *Eskuak patrikaretan* kanta osatu dute espresuki DVD honetarako — kanta horren bideoklipa www.berria.info webgunean ikusgai dago—. «Kontakizunaren sinopsia eran sartu dugu abestiaren bideoklipa DVDaren amaieran».

Erroen modernitatea izenarekin, bi gauza islatu nahi izan dituzte liburuxkaren eta DVDaren egileek. Batek, Basterretxearen erroak, sus-traiak, Euskal Herrian daudela, eta, bestetik, haren hizkuntza plastikoa, modernoa eta abstraktua dela.

ERAKUSKETA DONOSTIA. Datorren urtearen hasieran Donostiako Kursaal-

kokubetan Basterretxearen orain arteko lanak bilduko dituen erakusketa bat jartzeko asmoa dute.

Hala, artistak bere bizitza artistikoan ukitu dituen alderdiak islatu nahi dituzte. Erakusketan, artista bizkaitarraren lanak bilduko dituzte; eskulturak, margoak eta abar.



Testua eta irudiak biltzen ditu liburuxkak.